



RUBEN SANCHEZ
BAKAIKOA
IRAKASLEA

Zergatik bai Guaidóri?

Hasteko oharra: “Denbora-pasaren erantzuna bukaeran”.

Lehenik, Guaidóri ez esateko motibo batzuk etorri zaizkit burura. Josep Borrell kanpo aferetarako espainiar ministroak *Salvados* telesaioan emandako erantzunek ondorio logiko zenbaitetara eramanez ninduten. Bere esanean, Trump dago Guaidóren auto-izendatzearen atzean. Ezin argiago iradoki zuen. Trumpek, bestalde, dio aukera guztiak daudela mahai gainean. Beraz, segizioek hainbeste badakite: Irak, Afganistan, Libia, Haiti... Eta beraz, Venezuelakoa “gerra zibil” (non AEBek esku-hartzea izango luketen) bilaka liteke.

Bitxia da. Sofan telebistari so gaude-nok ia bihurtu nahi gaituzte Venezuelako etorkizunaren erabakitzaile, Guaidó Maduro baino hobe edo txarragoa iruditzen zaigun; hauteskundeak Venezuelatik kanpo balira bezala. Ondorioa: gure iritzi publikoan Guaidó baldin bada presidente zilegi, ezarri dezagun bera, aukera guztiak mahai gainean jarrita. (Bestalde, iruzurtzat salatzen dituzten Venezuelako hauteskunde presidentzialetan Zapatero espainiar presidente ohia aritu zen begirale, eta garden, legezko eta eredutzat hartu zituen).

Baina demagun ezetz. Demagun ez zirela hauteskunde garbiak izan. Nork

erabaki beharko luke munduan estatu batek bere mugetatik at muturra sartze-ko eskubidea noiz duen? Aski demokraziarik ez dagoen estatuen rankinga osatu beharko litzateke lehenik, eta horren arabera jokatu; eta, bide batez, bermatu demokraziaren babesleak demokrazia eta soilik demokraziagatik sartzen direla hara. Ia barregura demokratikoa ematen du iradokizunak. Izan ere, interbentzionismo demokratizatzaile men-debaldarra pixka bat tamalgarria izan da: Francoren Espainian ez, baina Txilen bai; Iraken bai, baina Arabia Saudin ez; Angolan bai, baina Hegoafrikan ez; Venezuelan bai, baina Kolonbian ez.

Hala ere, Venezuelan agian bai, agian Guaidó ezarri behar da estatuburu, herriarrei bizimodua hobeto joan dakien. Nik zalantza egiten nuen potentzia handi-mandi horiekin, Trump, Macron, Casado edo Sánchezekin.

Zorionez, zalantza itsaso hartan alde-rrai nenbilerarik, Urkulluk –gorbata eta ikurrinadun-pin– txiokatu zuen, zigun, zidan, Venezuelarako hauteskundeak eskatzen. Orduan, bai. Izan ere, zein helburu izan ote dezake eusko-demokrata batek Venezuelako demokrazia eta bakea, eta ez besterik, ezarri daitezen?

Jainkoa eta Lagi zaharraren izenean, sinetsi diot. ●

Adina



LEIRE NARBAIZA
ARIZMENDI
IRAKASLEA

Urteak bete eta konturatzen zara bizitza erdi baino gehiago egin duzula. Etopa batzuk pasatu direla, atzean laga duzula fase bat baino gehiago, gorputza ez dela atzera ere bera izango. Emakume bazara, gainera, umeak egiteko gaitasuna desagertu dela ziurtatuko duzu.

Zelan gertatu den galdetuko diozu zeure buruari, noiz bihurtu zinen nagusi, oraindik ere heldutasuna ez zaizula osorik iritsi begitantzen zaizu-eta.

Ingurukoek lasaitu gura zaituzte eta adina nortasun agirian jartzen duen datu bat baino ez dela ziurtatzen dizute. Bai

zera! Behin edade bat beteta behar-rako ere ez zaituzte nahi; antza denez, urteekin *gauzaeztana* bihurtzen zara. Eta andrazkoen kasuan ikusezin, zenbaki horrek kanonetik urrundu egiten zaituelako: ez zara desiragarri, beraz, ez duzu balio. Gazte denboran zuretzako lekuri ez eremu publikoan; eta orain ere ez, gazteen mesedetan.

Adinak ez duela inporta esaten dizute etengabe. Orduan, zergatik merkatuak bonbardatzen zaitu gaztetzeko produktuekin? Zimurak ederrak direla aldarrikatu zuen Adolfo Dominguezek, baina argi dago oihal zatiez baino ez ziharduela. ●